

ESPAINIAN BIZI DIRENEK ATZERRIAN EGINDAKO TRANSAKZIO EKONOMIKOEN ETA FINANTZA-AKTIBO ETA PASIBOEN SALDOAREN BERRI EMATEKO ARAUEN LABURPENA

Espainiako Bankuaren 4/2012 zirkularra, apirilaren 25ekoa
<http://www.boe.es/boe/dias/2012/05/04/pdfs/BOE-A-2012-5920.pdf>

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, atzerriko kobrantza eta ordainketak egiten dituzten Espainiako enpresa edo egoiliarrek transakzio horiei lotutako informazioa bidali beharko diote Espainiako Bankuari.

Jakinarazpen hori, orain arte funtsak bideratzen zituzten finantza-entitateek egiten zutena, eragiketen titularren egin beharko dute, euren betebeharra izango baita informazio horren berri ematea.

Jarraian, arauaren xehetasunak laburtuko ditugu, eta informazio gehiago eskuratzeko eta beharrezko inprimakiak deskargatzeko estekak zehaztuko dizkizuegu.

Betebeharra duten subjektuak

Espainian bizi diren pertsona fisiko eta juridikoak (publikoak nahiz pribatuak), ez-egoiliarrekin transakzioak egiten dituztenak (negozioak, eragiketak, atzerriko kobrantza, ordainketa eta transferentziak, kontuetako eta finantza-posizio zordun eta hartzekodunen aldaketak) edo atzerrian aktibo edo pasiboak dituztenak.

Informazioaren edukia

1. Zure kabuz ez-egoiliarrekin egindako eragiketak, likidazio-modua edozein dela ere: kanpoko transferentzien bitartez, banku-kontuetako edo enpresa arteko abonua edo zordunketen bitartez, konpentsazio bitartez edo eskudirutan.
2. Saldoak eta aktibo edo pasiboaren aldaketak atzerriarekiko, modalitatea edozein dela ere (banku- edo finantza-entitatetako kontuak, enpresa arteko kontuak, eskudiru- edo balio-gordailuak, kapitalaren parte-hartzeak, zor-tresnak, eratorritako finantza-tresnak, higiezinak...)

Informazioaren aldizkakotasuna

Aitorpena zehaztutako aldizkakotasunarekin egingo da, eta gehienez dagokion epe naturala amaitu eta 20 egun igarota, aurreko urtean zehar egindako transakzioen zenbatekoen arabera edo aurreko urteko abenduaren 31ko aktibo eta pasiboaren saldoen arabera.

- Miloi bat eurotik beherako zenbatekoak: Ez da beharrezkoa aitorpena egitea (Espainiako Bankuak eskatu ezean).
- Miloi bat eta 100 milioi euro artean: Urtero

Urteroko aitopena modu laburrean egin daiteke saldoen eta transakzioen zenbatekoa 50 milioi eurotik beherakoa bada. Horretarako, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: atzerriko aktibo eta pasiboen hasierako eta amaierako saldoa, kobrantza-eragiketen batura eta eta aitortutako epean egindako ordainketa-eragiketen batura.

- 100 eta 300 milioi euro artean: Hiruhilekoan behin
- 300 milioi eurotik gorako zenbatekoak: Hilero

Informazioaren bidalketa

Informazioa Espainiako Bankuaren Estatistika Sailari bidali beharko zaio, modu telematikoan eta zirkularreko "aplikazio teknikoetan" zehaztutako formatu, baldintza eta irizpideen arabera. Espainiako Bankuaren webgunean (sarbide publikoa) zehaztapen horien bertsio eguneratua aurki daiteke:

https://sedeelectronica.bde.es/sede/es/menu/tramites/Presentacion_po_31e444328b15831.html

Izapidetze-baldintzak

Informazio bidaltzeko NAN elektronikoa, DZZFNaren ziurtagiri elektronikoa edo Espainiako Bankuak igorritako osagai-ziurtagiria beharko da.

Oharra: Dokumentu honetan jasotako informazioa laburpen hutsa da, eta RURAL KUTXAK uko egiten dio informazio horren interpretazioak eragindako ondorioen edo araudiaren igorleak egindako eguneraketan gaineko erantzukizunari. Dena dela, informazioa zuzenean kontsultatzea gomendatzen da.